

Atxikimendua

Orain dela urte mordoxka, idazle jendeak hamaika eskari jasotzen zuen bere atxikimendua harako nahiz honako adieraz zezan. Asko eta asko presoen aldeko mugimenduetatik etorri ohi ziren eta oso litekeena zen eguerdian hurbilketaren edo amnistiaren aldeko manifa batera agertzea –behin baino gehiagotan ustekabeen pankartari heldua eta noizbait globoak eskuetan– eta iluntzean jakitea erakunde armatuak zinegotzi bat edo ertzain bat hil zuela, eta atxikimendua kontrako eztairitik joatea.

Gerora, nirean behinik behin, eskari hauek zeharo urritu ziren harik eta, duela zenbait hilabete, Praileaitzen aldeko sostengua eta testu bat eskatu zizkidaten arte; horrekin bat egin ostean, berriki, Amnistiaren Aldeko Mugimenduari egiten ari zaion epaiketaren kontrako agiria jaso nuen, baina honakoa ez nuen sinatu. Garai hartako atxikimendu etiko bertsua sentitzen dut presoekiko –besterik da bitarteekikoa–, baina bidali zidaten agiriak aspaldiko diskurtso berbera zekarren, hitz maiztu berberak, eta ez zitzaidan ez irekia ez bateratzailea iruditu, ezta oinazetik eta bidegabekerietatik irteteko baliagarria ere –tristeza da oraindik ere gutxieneko duintasuna eta eskubideak aldarrikatu beharra, baina ezin tristeagoak dira agiri irakurketen inguruko zeremonia ohiko eta argazki anakroniko horiek: mahai luzexka, bospasei aurpegi ezagunegi (ezen ez intelektual) eta atzeko segizio betiluna–. Gero, egunkariko sinadura zerrendari erreparatu, eta ohartu nintzen ez zuela batere zerikusirik garai hartan agertzen zen atxikimendu zabal harekin...

Orain dela urte mordoxka, hain zuzen ere atxikimendua eskatzen ez zitzaaien irakasle, bibliotekari edo ileapaintzaileei buruzko ipuin bat idatzi nuen (ikus *Garziarena* aldizkaria). Funtsean, itxurakeriaz pentsatu nahi nuen, eta –intelek-



ZALDI ERO

tualak– gizartean zuen funtzioaren gainbalorazioaz zein gainbeheraz. Gaurkoan, baina, sinadura noiz eta zergatik eskatu zaidan –edo ez– azaldu nahi nuke. Eskatu zait, modu orokor batean, Gizonduz plataformatik eta Interneten sina dezadan, baina borondateaz haragoko agiria hain iruditu zait politikoki zuzena, hain gatzbakoa eta eraginkortasun eskasekoa, ez baitut sinatu. Eskatu zait –Elkarri dut gogoan, edo Konponduz edo Baketik bezalako ekimenak, baina haien agi-

riak gaur egun ez ditut ezinbestekotzat jotzen eta zenbaitetan asmo onen errepikapen hutsalak iruditzen zaizkit– herri kontsultaren aldeko atxikimendua ere, baina politikari eta aditu askok diotenaren kontrara, ez dut uste euskal gizartea oraindik behar bezain heldu, kohexionatu eta –barkatu– ilusionatua dagoenik, eta horiek ere ez ditut sinatu.


Bitxia zait, gainera, herri galdeketa ahobeteka aipatzea eta,aldi berean, nire jaioterrian, Ordizian, Udalak Oiangu parke publikoa itxuraldatzeko eta txikitzeko batzar erabakiorra goizeko zortzietan egitea; bitxia zait herri txikien mailako erabaki –nire ustez ezinbesteko– horiek ukatzea eta ber denboran bestelako handinahiak eskatzea –zentzu honetan, benetan ez dakit AHTren aurka nagoen, baina ez dut hiritarrokiko begirunerik sentitu eta proiektuari inposizio eta txikizio zantzu guztiak antzematen dizkiot–. Eta, ororen buru, adierazi nahi dut zorigaitzez ez didatela sinadura eskatu, besteak beste, Isaias Carrasco hil zutenean...

Orain dela urte mordoxka, Espainiako demokraziaren lehen urteetan, UCDko alkate falangista ohi bati bisita egin zion orduko gobernadore zibila, eta hona hemen alkatearen aitortpena: “Gobernadore jauna, egunotan nahasmendua hain da handia, dagoeneko ez baitakit gutarra ote naizen ere”. ■

«

Bitxia zait, gainera, herri galdeketa ahobeteka aipatzea eta,aldi berean, nire jaioterrian, Ordizian, Udalak Oiangu parke publikoa itxuraldatzeko eta txikitzeko batzar erabakiorra goizeko zortzietan egitea

»



irudia:

Antton Olariaga